



Arartekoaren 2020R-2916-17 Ebazpena, 2020ko urtarrilaren 13koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politika Sailari gomendatzen zaio ebazpena berriz azter dezala; ebazpen horrekin bi adingabe dituen familia bati diru-sarrerak bermatzeko errentaren eskubide subjektiboa iraungi zaio eta ezingo du hura urtebetean eskatu; gainera, bidegabe jasotako zenbatekoak itzuli behar dituela adierazi da bertan, araudiaren arabera iraungitzeko arrazoirik ez dagoelako, eta kexagileak betebeharrak bete dituelako edo arau-hausterik egin ez duelako.

Aurrekariak

Herritar batek Arartekoaren esku-hartzea eskatu zuen, ez zegoelako ados Lanbidek bere bizikidetz-unitateari aitortutako diru-sarrerak bermatzeko errenta iraungitzeko emandako ebazpenarekin, arrazoi hauek direla tarteko:

-“Eskura dituzten baliabidek arduraz administratzea, eta arretaz jardutea egoera ekonomikoa edo bazterkeria-egoera larriagoa bihur ez dadin.

Diru-sarrerak bermatzeko errenta bizikidetz-unitateko kide guztien oinarrizko premiak betetzera ez bideratzea, ezta, hala ere badagokio, heien gizarteratze-eta/edo laneratze-prozesuak eragindako gastuak ez estaltzera.”

Data berean, Lanbidek prozedura bat abiaraziko zela ere jakinarazi zuen; horren bidez, prestazio horretatik bidegabe jasotako zenbatekoak itzultzeko eskatu zuen (5.795,31 €), kasu honetan, ordea, arrazoi hau dela tarteko: *“Beste arrazoi batzuk”*.

Hilabete lehenago, kexagileak (dibortziatu ondoren hiru urteko bi adingabe ardurapean dituen guraso bakarreko bizikidetz-unitatea osatzen du) jakinarazpen bat jaso zuen, eta bertan Lanbidek adierazi zion diru-sarrerak bermatzeko errentaren titular izanik betekizunak eta/edo betebeharrak ez zituela bete hauteman zuela. Zehatzago, erakunde publikoak honako hau justifikatzeko eskatu zion: *“...la procedencia del dinero invertido en la compra del Dacia Docker así como copia del contrato de compraventa. Por otro lado, también le requería la entrega del contrato de venta del Peugeot 206...”*.

Jaso ondoren, kexagileak alegazioak aurkeztu zituen, dokumentazio lagungarria eta guzti; hala, adierazi zuen berak ez zuela izenpetu eta ez zuela mailegurik ordaintzen diru-sarrerak bermatzeko errentaren onuradun izanik, baizik eta bere aitak sinatu zuela eta zegozkion kuotak ordaintzen ari zela, ondoren berari oparitzeko erabiltzeko, ibilgailuaren eta maileguaren titulartasuna aldatuz.

Aldaketa horren arrazoa izan zen finantza-kontratuak ez zuela uzten autoaren titulartasuna zuen pertsona mailegu pertsonala izenpetzen zuenaz bestelakoa





izatea, erosketa ordaintzeko eta dagozkion kuotak ordaintzeko; beraz, gaur egun mailegu-kontratua kexagilearen izenean eta haren aitaren izenean dago, abal-emaile gisa. Nolanahi ere, banketxean egiaztatu zuen prozeduraren hasieratik maileguaren kuotak ordaintzen zituena bere gurasoa zela, eta berak ez zuela inoiz diru-sarrerak bermatzeko errenta/etxebizitzarako prestazio osagarria mailegu hori ordaintzeko erabili. Diru-sarrerak bermatzeko errentaren/etxebizitzarako prestazio osagarriaren onuradun gisa zituen betekizun eta betebeharrak guztiak bete ditu une oro.

Dena den, Lanbidek bere alegazio guztiak ezetsi zituen eta diru-sarrerak bermatzeko errenta iraungitzeko adierazpena jaso ondoren, kexagileak aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu zuen zegokion epean eta moduan; hala, bere desadostasuna agertu zuen berriz eta prozeduraren hasieran aipatutako argudioak errepikatu zituen.

Aurkeztu ondoren, erakunde honetara jo zuen kexa aurkezteko. Arartekoak izapidetzeko onartu zuen kexa, eta, gero, lankidetzak eskatu zion Lanbideri, adierazitako egitateari lotuta. Horrez gain, aurretiko gogoeta batzuk helarazi zizkion, baina, errepikakorrak ez izatearren, gero aipatuko ditugu.

Lankidetzak-erantzunari erantzunez, Lanbideko zuzendari nagusiak lehendabiziko txosten bat igorri zion Arartekoari, honako hau adieraziz:

-“Aurkeztutako errekurtsoa eta espedienteko dokumentazioa aztertuta, egiaztatu dugu errekurtsogileari 2017ko uztailaren 7an helarazitako entzunaldi-izapidean jakinarazi zitzaiona 2017ko ekainaren 23an Dacia Dokker bat erosten gastatutako diruaren jatorria justifikatu behar zuela, hamar egun baliaduneko epean (jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita), aukera izan zezan aipatutako baldintzak eta/edo betebeharrak betetzen zituela egiaztatzearen egoki zeritzen agiri eta froga guztiak idatziz aurkeztu eta alegatzeko.

Oro har, jasotzaileei ez zaie onartuko maileguak eskatzea, DSBEa inola ere ezin baita erabili ezein kreditu ordainduko dela edo ezein ordainketa geroago egiteko konpromisoa beteko dela bermatzeko. Lan jarduera bat abiarazteko baino ez dira izango onargarriak, betiere lokal bat erosteko ez badira, eta ez da hori oraingo kasua.

2017ko irailaren 11n aurkeztutako berraztertze-errekurtsoan bertan (...) andreak berak dio familia hara-hona joateko edo erosketak egiteko erabiltzen dela ibilgailua, eta argi eta garbi frogatuta gelditzen da, beraz, lan-jarduera beterako ez dela..

Horrenbestez, 2012/RGI/003847 espedientea azkenduta geratuko da, lehen ikusitako dekretuaren 49.f artikulua arabera, kontuan hartuz Diru Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko 147/2010 Dekretuak, maiatzaren 25ekoak, 9.3 artikuluan jasotakoa,





Bai aztertu den denbora-tartea eta bai galdegiten diren kopuruak zuzenbidearekin bat datoz. Horregatik guztiagatik IKUSITA aipatutako lege-xedapenak eta aplikazio orokorreko gainerakoak, Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak, esleituta dauzkan eskumenak baliatuta, honako hau.

Ezestea Lanbide –Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak 2017ko uztailaren 21ean emandako ebazpenaren aurka (...) andreak aurkeztutako errekurtoa”.

Lankidetzaren txosten horretan aipatzen zen kexagileak ez zituela betekizunak betetzen iraungitzeko arrazoi gisa, eta kexagileak jasotako iraungitze-ebazpenaren arrazoiaren aurka egiten zuen, ebazpen horretan adierazten zen bezala betebeharrak ez betetzeari lotuta.

Lankidetzaren txosten hori jaso eta aztertu ostean, Arartekoak bigarren informazio eskaera osagarria igorri zuen Lanbidera, honi buruzko argibidea eskatzeko:

-“espediente honetan maileguaren aplikazioak duen lege-oinarri ezari buruko balorazioa eta, beraz, prestazioak iraungitzeak duen balizko oinarri eza”.

Lanbidek beste eskaera horri bigarren lankidetzaren txosten batekin erantzun zion, eta bertan bere jarrera errepikatzeaz gain, Arartekoari honako hau jakinarazi zion: Gaur egun, 2018/RGI/0101885 espedientea dela tarteko, eta 2018ko uztailaren 3tik 2020 uztailaren 2ra bitartean, hileko 924,33€-ko DSBE prestazioa jasotzen du herritar horrek, eta horri hileko 48,51 € gehitzen zaizkio guraso bakarreko bizikidetzaren unitateagatik”.

Horrek esan nahi zuen Lanbidek guraso bakarreko bizikidetzaren unitateari urtebeteko zigorra aplikatu ziola diru-sarrerak bermatzeko errenta berriz eskatu ahal izan gabe, prestazioak iraungitzeko ebazpena eman ondoren, maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuak (Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzkoa) 50.2 artikuluan xedatutakoa aplikatuz. Honela dio artikulua horrek:

-“2.- Prestazioa azkentzeko arrazoiak betebeharrak ez betetzea edo arau-hausteak egitea izan bada, titularrak ezin izango du berriz ere diru-sarrerak bermatzeko errenta eskatu (edozein izanik ere modalitatea) eskubidea azkendu den unetik urtebete igaro arte”.

Informazio osagarri hori jaso eta aztertu ondoren, Arartekoak ulertu zuen erakunde publikoak ez ziola behar bezala erantzun arestian aipatutako zehaztasun-eskaerari, eta hirugarren informazio-eskaera bat bidali behar izan zuen. Bertan, Lanbideri azpimarratzen zitzaion, araudiaren arabera, ezberdinak direla bi kasu hauek: alde batetik, diru-sarrerak bermatzeko errentaren titular batek mailegu pertsonal bat izenpetzea, dagozkion kuotak diru-sarrerak bermatzeko errenta/etxebizitzarako prestazio osagarria diru-sarrerekin ordainduz, edo bestetik, aitak mailegua izenpetzea, kuotak ordaintzea eta gero maileguaren eta autoaren titulartasuna alabari pasatzea, une horretatik aurrera abal-emaile bihurtuz.





Informazio eskaera horri ez zitzaion epearen barruan erantzun, eta Arartekoak eskatu behar izan zuen; horren ondoren, Lanbidek hirugarren txosten bat bidali zuen aurreko jarrera berresteko.

- Horrenbestez, beharrezkoak diren egitate eta zuzenbide elementuak ditugula uste dugunez, honako gogoeta hauek egin nahi ditugu:

Gogoetak

1. Lanbidek, kexagileak prozeduraren hasieran aurkeztutako alegazioak ezetsi ondoren, bizikidetz-unitateari aitortutako diru-sarrerak bermatzeko errenta iraungitzea ebatzi zuen maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuak (Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzkoa) 12. artikuluan titularrei ezarritako bi betebeharrak ez betetzeagatik.

-“ Eskura dituzten baliabideak arduraz administratzea, eta arretaz jardutea egoera ekonomikoa edo bazterkeria-egoera larriagoa bihur ez dadin.

Diru-sarrerak bermatzeko errenta bizikidetz-unitateko kide guztien oinarrizko premiak betetzera bideratzea, eta, hala balegokio, haien gizarteratze- eta/ edo laneratze-prozesuak eragindako gastuak ordaintzea”.

Diru-sarrerak bermatzeko errentaren iraungitzea lege honetan arautu zen, hasieran: 18/2008 Legea, abenduaren 23koa, Diru Sarrerak Bermatzeari eta Gizarteratzeari buruzkoa, eta haren 28.1 artikuluan zehazki jasotzen dira zein diren iraungitzeko arrazoiak. Horren ostean, artikulua hori indarrean dagoen azaroaren 24ko 4/2011 Legeak aldatu zuen, eta haren behin betiko idazketan aipatzen dira honako hauek direla diru-sarrerak bermatzeko errenta iraungitzeko arrazoiak:

- a) *“Prestazioaren titularra hiltzea, pertsona bakarreko bizikidetz-unitateak direnean.*
- b) *Prestazioaren bi urteko indarraldia amaitzea, Administrazioak hala eskatu ondoren berritzea eskatzen ez bada.*
- c) *Behin betiko galtzea eskubidea aitortzeko exijitutako eskakizunetako bat.*
- d) *Etete-egoera bat hamabi hilabetetik gorako denbora jarraituan mantentzea.*
- e) *Ez betetzeagatiko bi eten egotea prestazioa indarrean dagoen bi urteko aldian.*
- f) *Titularrak uko egitea.*
- g) *Zigor-prozedura batek hala ebatzea.*
- h) *Ez betetzea lege honetako 19.1.b artikuluan ezarritako betekizuna.*
- i) *Aplikatzeko modukoa denean, behin uko egitea, arrazoi justifikaturik gabe, indarreko legediaren arabera egokia den enplegu bati edo diru-sarrerak handitzea ekar lezakeen lan-baldintzen hobekuntza bati”.*





Halaber, artikulua berberaren 3. apartatuak hau dio: *“Prestazioa iraungiko balitz betebeharrak ez betetzeari edo hutsak egiteari lotutako kausengatik, titularrak ez du izango aukerarik diru-sarrerak bermatzeko errenta, bere ezein modalitatetan, berriro eskatzeko urtebetean, iraungitze-datatik zenbatzen hasita. Ondorio berbera eratorriko da artikulua honetako 1.d eta 1.e idatz-zatietan jasotako etete-kasuei lotutako iraungitze batetik”.*

Azterketa honen xede den ebazpenean iraungitzeko arrazoi gisa Lanbidek adierazitako bi arrazoiak ez dira jasotzen iraungitzeko arrazoiak arautzen dituen aurreko lege-xedapenean.

Maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuak (Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzkoa) 12. artikuluan honako hauek ezartzen ditu diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularrak dituzten betebeharren artean:

- a) Diru-sarrerak bermatzeko errenta aplikatzea bizikidetzaren unitateko kide guztien oinarriko premiak estaltzeko eta, hala badagokio, haien gizarteratze eta/edo laneratze-prozesutik sortutako gastuak estaltzeko.
- b) Eskura dituzten baliabideak arduraz administratzea, eta arretaz jardutea egoera ekonomikoa edo bazterkeria-egoera larriagoa bihurtzen ez dadin.

Hori ez betetzeak diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea etetea ekar dezake (maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 43.2 artikulua), baina ez du aurreikusitako zuzenean iraungitzea.

Horregatik guztiagatik, Arartekoaren iritziz, Lanbidek azaldutako arrazoiak ez du arau-babesik, iraungitzea erabakitzearen aurreikusitako arrazoiaren artean ez dauden jokabideak aipatzen baititu, baizik eta diru-sarrerak bermatzeko errentaren titular gisa bete behar diren betebeharrak erantzuten die, eta horiek ez betetzeak prestazio hori jasotzeko eskubidea etetea dakar edo, hala badagokio, iraungitzea, bi ez-betetze gertatu badira bi urteko epean 18/2008 Legea, abenduaren 23koa, Diru Sarrerak Bermatzeari eta Gizarteratzeari buruzkoa [Diru Sarrerak Bermatzeari eta Gizarteratzeari buruzko abenduaren 18/2008ko 28.1.e) artikulua, azaroaren 24ko 4/2011 Legeak aldatua].

2. Diru-sarrerak bermatzeko errenta gisa bidegabe jasotako zenbatekoak itzuli behar direlako arrazoiari dagokionez, honengatik: *“Beste zenbait arrazoi: Diru-sarrera ezohikoa ibilgailuaren salerosketagatik”.*

Aipatu den moduan, egiaztatu da kexagileak ez duela ibilgailurik erosi diru-sarrerak bermatzeko errentaren titular izanik, eta ez duela mailegurik izenpetu. Bizikidetzaren unitatearen barnean ez dagoen haren aitak izenpetu zuen mailegua auto bat erosi eta gero alabari oparitzeko, hori egiteko alabak baliabiderik ez zuela kontuan hartuta. Mailegua izenpetu eta ibilgailua erosi ondoren, bi titulartasunak aldatu behar izan zituen mailegua kontratatu zuen finantza-entitatearen eskaerari kasu





eginez, ez baitzuen uzten ibilgailuak eta maileguak titulartasun ezberdina izan zezaten. Aitak abal-emaile gisa jarraitu zuen, ordea, eta maileguko kuota guztiak ordaintzen dituela egiaztatu da. Azkenik, autoaren titulartasun-aldaketa hori dohaintza batekin edo antzeko figura batekin parekatu ahal izango litzateke, baina ez kexagileak diru-sarrerak bermatzeko errentarekin hilero ordaindutako mailegu bat sinatzearekin.

Hala ere, ibilgailuaren eta maileguaren titulartasuna aldatu egin zenez, Lanbidek kexagileari jakinarazi zion prestazio horretatik bidegabe jasotako zenbatekoak itzuli behar zituela (5.795,31 euro) kasu honetan arrazoi hauengatik: - *"Beste zenbait arrazoi. Diru-sarrera ezohikoa ibilgailua salerosteagatik"*. Prozeduraren hasierari dagokionez, kexagileak Peugeot 306 bat lehenago saldu izanari buruzko dokumentazioa eskatu zuen, eta, nolana ere, irabazirik izanez gero, berriro ere ezohiko diru-sarrera gisa zenbatuko litzateke.

Arartekoaren iritziz, ibilgailuaren salmenta eta aitak ibilgailu berri bat oparitzea ezohiko diru-sarrerei buruzko araudian eta figuran sar daitezke, maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuak (Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzkoa) 20.1 artikuluan xedatzen duen moduan: *"Bizikidetzaren unitateko kideren bati zuzenean egokitzen zaizkion sarietatik eratorritako diru-sarrerak, horiek erabili ahal izan diren egunaren ondorengo hirurogei hilabeteetan, sariaren guztizko zenbatekoa zati hirurogeiren baliokide diren hileroko diru-sarrera gisa konputatuko dira"*.

Eta 3. apartatuan diru-sarrera ezohikoen modalitateak aipatzen ditu *"a) Edozein motatako kalte-ordainak. b) Elikagaien eta konpentsazio-pentsioen eskubide gisa jasotako atzerapenak, jaso behar ez zirela jasotako prestazioengatik itzuli behar ez diren zenbatekoan. c) Jaraunspenak eta legatuak. d) Dohaintzak. e) Ondarea saltzeagatik sortutako eta ohiko etxebizitzan inbertitu gabeko baliabideak. f) Aurreko ataletan bildu ez diren gainerako diru-sarrerak, erregularrak ez direnak edo bizikidetzaren unitateko edozein kide ezohiko izaeraz lortu dituenak"*

Arartekoaren aburuz, autoaren salmentatik eta aitaren oparitik sortutako baliabide ekonomikoak handitzeak diru-sarrera ezohikoen araudian ezarritako tratamenduaren xede izan behar zuen. Legezko figura hori aplikatzearen ondorioa izango litzateke 60 hilabetez diru-sarrera gisa zenbatzea, eta, nolana ere, bizikidetzaren unitateak hilero jaso beharreko diru-sarrerak bermatzeko errenta kopurua murriztea.

3. Hala ere, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea iraungitzea eta 5.795,31 euro itzultzeko betebeharra erabaki du. Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea iraungitzearen ondorioz, guraso bakarrek bizikidetzaren unitateak ezin izan du prestazio hori eskatu urtebetez 18/2008 Legearen 28.3 artikulua aplikatuz Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Legea aldatzeko 4/2011 Legeak emandako idazketan.

Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta iraungitzeko arrazoi gisa oker erabilitako argudioak, egiazki, araudian ezarritako betebeharrak ez betetzea dira





(147/2010 Dekretuaren 12. artikulua) diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularrentzat, eta honako hauek dira:

Eskura dituzten baliabideak arduraz administratzea, eta arretaz jardutea egoera ekonomikoa edo bazterkeria-egoera larriagoa bihur ez dadin.

Diru-sarrerak bermatzeko errenta bizikidetzaz unitateko kide guztien oinarrizko premiak betetzera bideratzea, eta, hala balegokio, haien gizarteratze- eta/ edo laneratze-prozesuak eragindako gastuak ordaintzea”.

Ez, ordea, iraungitzeko arrazoiak, azaroaren 24ko 4/2011 Legean indarrean dagoen idazketaren 28. artikuluan adierazitakoaren arabera.

Gainera, iraungitzeko prozedura hasi zenetik, egiaztatu da kexagileak ez duela urratu diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioak iraungitzea eragin zuten betebeharrak bat ere: ez ditu era arduragabeen administratu eskura zituen baliabideak, ez du arduragabekeriak jokatu egoera ekonomikoa edo bazterkeria-egoera larriagoa saihesteko, eta diru-sarrerak bermatzeko errenta aplikatuz jarraitu du bizikidetzaz unitateko kide guztien kide guztien oinarrizko premiak estaltzeko, edo, hala badagokio, gizarteratze eta/edo laneratze prozesuaren ondoriozko gastuak estaltzeko. Egin duen gauza bakarra aitaren opari bat jasotzea izan da.

Beraz, bizikidetzaz unitateak 18/2008 Legearen 28.3 artikulua aplikatuz jasan duen urtebeteko zigorra ezin da aplikatu eta ez du lege babesik Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Legea aldatzeko 4/2011 Legeak emandako idazketan. Urte horretan dagokion diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen jarraitu behar zuen.

4. Gainera, diru-sarrerak bermatzeko errenta iraungitzeak bizikidetzaz unitatearen egoeran duen eraginaz gain, eta urtebetez prestazioa eskatzerik ez izatearen zigorraz gain, bizikidetzaz unitateak 5.795,31 euro itzultzeko betebeharraren adierazpena gehitu da.

Illo horretan, gogora ekarri behar da Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren arrazoiaren azalpenak lehenengo bi paragrafoetan dioena:

“...ezinbestekotzat jotzen du politika publikoen ahaleginak berrorientatzea, bilakaera horren ezaugarri kualitatiboak ezarri dituzten hainbat joera kontuan izanik, bereziki pobrezia-aren feminizazioa –gurasobakar-egoerekin zuzenean lotua– eta, beharbada garrantzi handiagoarekin haren egitura-profila dela medio, soldata-maila baxuei lotutako pobrezia.

Helburu hori lortzeko eta ekintza publikoa eremu horretan biztanleen benetako premietara egokitzeko, testuak indarrean jartzen du Gizarteratzeko eta Diru





Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema, eta bi funtsezko osagai esleitzen dizkio: prestazio ekonomikoak.”

Garrantzitsua da gogoraraztea emakumeek eta ardurapeko adingabeek osatutako guraso bakarreko familiak pobrezia-egoeren eraginpean daudela, eta hala erakusten da Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak egindako txosten eta diagnostikoetan, bai eta erreferentziazko beste erakunde batzuek egindakoetan ere.⁴ 5 Are gehiago diru-sarrerak bermatzeko errentaren/etxebizitzarako prestazio osagarriaren titular izanik.

Hain zuzen ere, Arartekoak familia horien errealitatea ezagutzen du, bai eta aitortu zaizkien prestazioak iraungita ikusteak haiengan izan dezakeen eragina ere. Prestazio horien helburu bakarra haien oinarrizko premiak betetzea da, eta ez dago egiaztatuta, gainera, iraungitzea erabakitzeke legeko arrazoirik dagoenik.

Halaber, Arartekoak errepikatu nahi du ere gomendio honetan adierazitako funtsezko elementuek hizpide dugun kasuan duen eragina: [Arartekoaren 2/2015 Gomendio Orokorra, apirilaren 8koa. Politika publikoetan adingabearen interes nagusia kontuan hartzeko betebeharrari buruzkoa da eta, bereziki, diru-sarrerak bermatzeko sisteman.](#)⁶

Araudiaren aplikazioa aztertzen zen bertan haurren arloan adostu diren nazioarteko tresnak kontuan hartuz. Horrez gain, berriz ere azpimarratu zen oso garrantzitsua dela gure ordenamendu juridikoan (Nazio Batuen 1989ko Konbentzioa, Haurren Eskubideei buruzkoa; uztailaren 22ko 8/2015 Lege Organikoa; urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoa) ageri den adingabearen interes gorenerako eskubidea kontuan hartzea. Kontu hori garrantzizkoa dela iruditzen zaigu gomendio honek xede duen kasuan, eta Lanbidek aintzat hartu beharko luke prestazioa iraungitzeke adierazpena egin baino lehen.

Ondorio orokor gisa, erakunde honen ustez:

-Diru-sarrerak bermatzeko errenta iraungitzea ez da zuzenbidearen araberakoa izan, prestazioak iraungitzeke ebazpenean adierazitako arrazoiak ez baitira araudian jasotzen.

Kexagilearen jokabideak ere ez du eragin betebeharren bat ez betetzea. Bere aitak ibilgailu bat oparitu izana, bere aldetik inolako ordainketarik ekarri ez duela egiaztatuta denean, ezin da ulertu Lanbidek interpretatzen duen ildotik, hau da,

⁴ - Pobrezia eta gizarte desberdintasunei buruzko inkestaren emaitzen txostena (PGDI), 2016:

[Hemen eskuragarri:

https://eu.eustat.eu/elementos/ele0014100/Pobrezia_eta_gizarte_desberdintasunei_buruzko_inkesta_PGDI-2016/inf0014126_e.pdf].

⁵ EMAKUNDE 2018 Txostena: “Generoaren araberako eraginaren ebaluazioa gizarte-bazterketaren eta txirotasunaren esparruan” [Hemen eskuragarri:

https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/politicas_evaluaciones_2/eu_def/adjuntos/exclusion_pobreza_eu.pdf

⁶ Webgune honetan eskuragarri: http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_3662_1.pdf





baliabideak arduraz administratu ez dituela, arduratsu jokatu ez duela, edo diru-sarrerak bermatzeko errenta ez duela aplikatu oinarrizko beharrak betetzeko edo gizarteratzeko eta/edo laneratzeko prozesuaren ondoriozko gastuak ordaintzeko. Nolanahi ere, diru-sarrera ezohikoetarako ezarritako aurreikuspena aplikatu beharko zen.

Horren ondorioz, uste dugu prestazioa berriz eskatu ahal izan gabe urtebetez zigortzeak ez duela legezko babesik, ez baitago iraungitzeko arrazoirik.

Eta, azkenik, Lanbidek bidegabe jasotako zenbatekoak erreklamatzeko, diru-sarrerak bermatzeko errenta iraungi eta urtebetez berriz eskatu ezin izan ondoren, ez dator bat araudiarekin; izan ere, haren ekintzaren ondorioa izango litzateke 60 hilabetez diru-sarrera gisa zenbatzea eta, gehienaz ere, bizikidetzaren unitateak hilero jaso beharreko diru-sarrerak bermatzeko errentaren zenbatekoa murriztea.

Horrenbestez, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —Arartekoa sortu eta arautzekoak— 11. b) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, honako gomendio hau egiten zaio Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari:

GOMENDIOA

Ebazpena berriz azter dezala; horren bidez, alde batetik, bi adingabe ardurapean dituen guraso bakarreko bizikidetzaren unitate bateko diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubide subjektiboa iraungitzen da, eta bestetik, prestazio hori urtebetez ezingo du berriz eskatu, araudiaren arabera iraungitzeko arrazoirik ez baitago eta betebeharrak guztiak bete baitira.

Berriz azter dezala diru-sarrerak bermatzeko errenta gisa bidegabe jasotako zenbatekoak erreklamatzeko ebazpena, ez baitu lege babesik.

